Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGA ARAUPETU DUEN ORDENANTZA

# ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES INSTALACIONES Y OBRAS

## *I. XEDAPEN OROKORRAK*

**1. artikulua.**

Udal honek Toki Ogasunak araupetu dituen Lurralde Historikoaren Foru Arauan eta Zergei buruzko Foru Arauan ezarri dena betez, eraikuntza, instalazio edo obrak egiteagatik dauden zerga bereziak araupetu dituen Ordenantza onetsi du; ordenantzaren barruan aplikagarriak diren tarifak ere bildu dira.

**2. artikulua.**

Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.

## *II. ZERGA EGITATEA*

**3. artikulua.**

Lan edo hirigintza lizentzia behar duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea da zerga egitatea, lizentzia hori jaso edo ez arren, baldin eta lizentzia ematea Udal honi badagokio.

**4. artikulua.**

Zergapeko zerga egitateak, banan-banan adieraziz, ondoko hauek dira:

1.- Solairu berridun mota guztietako eraikuntza edo instalazioetako eraikitze-obrak.

2.- Egon dauden mota guztietako eraikuntza edo instalazioak handitzeko obrak

3.- Egon dauden mota guztietako eraikuntza eta instalazioen egituran eragin dezaketen aldarazpen edo zaharberrikuntzak.

## *I. DISPOSICIONES GENERALES*

**Artículo 1.**

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y la Norma Foral particular del tributo establece y exige el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen las tarifas aplicables.

**Artículo 2.**

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

## *II. HECHO IMPONIBLE*

**Artículo 3.**

Constituye el hecho imponible de este impuesto la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija obtención de la correspondiente licencia de obras urbanística, se haya obtenido o no dicha licencia, siempre que su expedición corresponda a este Ayuntamiento.

**Artículo 4.**

A titulo enunciativo, constituyen supuestos de hecho imponible sujetos al impuesto los siguientes:

1.- Las obras de construcción de edificaciones o instalaciones de todas clases de nueva planta.

2.- Las obras de ampliación de edificios o instalaciones de todas clases existentes.

3.- Las de modificación o reforma que afecten a la estructura de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.

4.- Egon dauden mota guztietako eraikin edo instalazioen kanpoko itxura aldarazteko obrak.

4.- Las de modificación del aspecto exterior de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.

5.- Eraikinen barruko taxuketa aldatzen duten obrak, horien erabilera gora-behera.

5.- Las obras que modifiquen la disposición interior de los edificios, cualquiera que sea su uso.

6.- Lurzoruari buruzko Legearen 2. artikuluan aipatu diren behin-behineko obrak. Lurzoruaren Legeari buruzko testu bateginaren 58 artikulua.

6.- Las obras que hayan de realizarse con carácter provisional a que se refiere el apartado 2 del art. 58 del texto refundido de la Ley del Suelo.

7. Herri zerbitzuak instalatzeko obrak.

7.- Las obras de instalación de servicios públicos.

8.- Lurren mugimenduak, besteak beste lur-erauzketak, indusketak eta lur-berdinketak, jarduera horiek onartutako edo baimendutako Hirigintza edo Eraikuntza Proiektuko obra bezala burutzeko programatuak dauden kasuan salbu.

8.- Los movimientos de tierra, tales como desmontes, excavación y terraplenado, salvo que tales actos estén detallados y programados como obras a ejecutar en un Proyecto de Urbanización o de Edificación aprobado o autorizado.

9.- Eraikuntzak erraustea, aurri zorian daudela aitortuetan salbu.

9.- La demolición de las construcciones, salvo en las declaradas de ruina inminente.

10.- Lurpeko instalazioak: aparkalekuak, industria, merkataritza edo lanbide jarduеretarako instalazioak, zerbitzu publikoenak edo lur azpiari ematen zaion beste edozein erabilera dutenak.

10.- Las instalaciones subterráneas dedicadas a aparcamiento, actividades industriales, mercantiles o profesionales, servicios públicos o cualquier otro uso a que se destine el subsuelo.

11.- Propaganda kartelak herri bideetatik ikusteko eran jartzea.

11.- La colocación de carteles de propaganda visibles desde la vía pública.

12.- Gaitasun ekonomikoa agerian jartzen duten baliabide ekonomikoen inbertsioa eskatzen duten obra, eraikuntza eta instalazio guztiak, baldin eta obra lizentzia edo hirigintzako lizentzia behar badute .

12.- Cualesquiera obras, construcciones, o instalaciones que impliquen inversión de recursos económicos demostrativos de una capacidad económica y sujetos a licencia de obras o urbanísticas.

**5. artikulua.**

**Artículo 5.**

Ez dira zerga honi lotuta egongo ondoko hauek:

No estarán sujetas a este impuesto:

1. Udal honen jabetza-titulartasuneko higiezinetan egin diren eraikuntza, obra edo instalazioak, baldin eta Udala bada obraren jabea.

1. Las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponda a este Ayuntamiento, siempre que ostente la condición de dueño de la obra.

2. Estatua, autonomia erkidegoen edo toki izakien jabetzako era guztietako eraikuntza, instalazio edo obrak, baldin eta horri lotuta badaude, zuzenean errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko,

2. La realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean dueños el Estado, las Comunidades Autónomas o las Entidades Locales, que estando sujetas al mismo,

biztanleguneen saneamendu eta horien hondakin uren saneamendurako izango badira; kudeaketa erakunde autonomiadunek egindakoak baldin badira ere eta inbertsio berriko obrak zein artapenekoak izan.

vayan a ser directamente destinadas a carreteras, ferrocarriles, puertos, aeropuertos, obras hidráulicas, saneamiento de poblaciones y de sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por organismo Autónomos, tanto si se trata de obras de inversión nueva como de conservación.

3. Egoitza Santua, Gotzainen Batzarra, Elizbarrutia, Parrokiak eta beste lurralde-mugape batzuk, erlijio-ordena eta kongregazioak, bizitza kontsakratuko erakundeak, haien probintziak eta etxeak oso-osorik eta modu iraunkorrean salbuetsita daude eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaintzetik.

3. La Santa Sede, la Conferencia Episcopal, las Diócesis, las Parroquias y otras circunscripciones territoriales, las Ordenes y Congregaciones Religiosas y los Institutos de vida consagrada y sus provincias y sus casas, disfrutan de exención total y permanente en el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

***III. SUBJEKTU PASIBOAK***

**6. artikulua.**

1.— Ondorengoak ditugu, zergadun moduan, zerga honen subjektu pasiboak: Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatutako pertsona juridiko edo erakundeak, eraikuntza, instalazio edo obren jabe direnak, obra egingo den higiezinaren jabe izan zein ez.

2.— Aurreko paragrafoaren ondoreetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabea haren gastuak edo kostuak jasaten dituena da.

3.— Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, haren ordezko subjektu pasiboa izango da eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko lizentzia eskatzen duena edo hura egiten duena.

4.— Ordezko subjektu pasiboak ordaindutako zerga-kuotaren zenbatekoa eskatu ahal izango dio zergadunari.

***III. SUJETOS PASIVOS***

**Artículo 6.**

1.— Son sujetos pasivos de este impuesto, a título de contribuyentes, las personas físicas, personas jurídicas o entidades del Artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, que sean dueños de la construcción, instalación u obra, sean o no propietarios del inmueble sobre el que se realice aquélla.

2.— A los efectos previstos en el párrafo anterior tendrá la consideración de dueño de la construcción, instalación u obra quien soporte los gastos o el coste que comporte su realización.

3.— En el supuesto de que la construcción, instalación u obra no sea realizada por el sujeto pasivo contribuyente tendrán la condición de sujetos pasivos sustitutos del mismo quienes soliciten las correspondientes licencias o realicen las construcciones, instalaciones u obras.

4.— El sustituto podrá exigir del contribuyente el importe de la cuota tributaria satisfecha.

***IV. ZERGA OINARRIA***

**7. artikulua.**

1.— Zerga-oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da; benetako kostua hura burutzeko kostua izango da.

***IV. BASE IMPONIBLE***

**Articulo 7.**

1.— La base imponible del impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra, y se entiende por tal, a estos efectos, el coste de ejecución material de

aquella.

Ez dira sartuko zerga-oinarrian ez Balio Erantsiaren gaineko Zerga, ez araubide bereziko antzeko gainerako zergak, ez tasak, ez prezio publikoak, ez eraikuntza, instalazio edo obrarekin zerikusia duten ondarearen gaineko gainerako toki prestazioak, ez profesionalen ogibidesariak, ez kontratistaren enpresa-mozkina, ez burutzapen materialaz kanpoko gainerako kontzeptu guztiak.

No forman parte de la base imponible el Impuesto sobre el Valor Añadido y demás impuestos análogos propios de regímenes especiales, las tasas, precios públicos y demás prestaciones patrimoniales de carácter público local relacionadas, en su caso, con la construcción, instalación u obra, ni tampoco los honorarios de profesionales, el beneficio empresarial del contratista ni cualquier otro concepto que no integre, estrictamente, el coste de ejecución material.

2.— Zerga oinarria, Udal lizentziarik gabeko eraikuntza, instalazio edo obren kasuetan, Udal Administrazioak ezarritakoa izango da.

2.— En el caso de construcciones, instalaciones y obras sin licencia municipal, la base imponible se fijará por la Administración Municipal.

## *V. ZERGA KUOTA*

**8. artikulua.**

Zergaren kuota eranskinean adierazi den zerga oinarriari karga tasa aplikatzearen emaitza izango da.

## *V. CUOTA TRIBUTARIA*

**Articulo 8.**

La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen que se expresa en el Anexo.

## *VI. SORTZAPENA*

**9. artikulua.**

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan gertatuko da, oraindik obra burutzeko lizentzia jaso ez bada ere.

## *VI. DEVENGO*

**Artículo 9.**

El impuesto se devengará en el momento de iniciarse la construcción, instalación y obra, aún cuando no se haya obtenido la correspondiente licencia.

## *VII. KUDEAKETA*

**10. artikulua.**

Manuzko lizentzia ematerakoan behin-behineko likidazioa egingo da, zerga oinarria interesatuek aurkeztu duten aurrekontuaren arabera zehaztuko da, baldin eta aurrekontu horrek bidezko elkargo ofizialaren ikusonespena badu; bestela, udal teknikariek, egitasmoaren kostu zenbatetsian oinarriturik, zehaztuko dute zerga oinarria.

**11. artikulua.**

Bidezko lizentzia eman ondoren hasierako proiektua aldatuko balitz, behin-behineko likidazio berria egiteko aurrekontu berria aurkeztu beharko litzateke, aldarazitako aurrekontuak jatorrizko aurrekontuaren munta nola aldarazten duen kontuan hartuta.

## *VII. GESTIÓN*

**Artículo 10.**

Cuando se conceda la licencia preceptiva se practicará una liquidación provisional, determinándose la base imponible en función del presupuesto presentado por los interesados, siempre que el mismo hubiera sido visado por el colegio oficial correspondiente; en otro caso, la base imponible será determinada por los técnicos municipales, de acuerdo con el coste estimado del proyecto.

**Artículo 11.**

Si concedida la correspondiente licencia se modificara el proyecto inicial, deberá presentarse un nuevo presupuesto a los efectos de practicar una nueva liquidación provisional a tenor del presupuesto modificado en la cuantía que exceda del primitivo.

**12. artikulua.**

1. Egin diren eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta horien benetako kostua kontuan hartuta eta administrazio egiaztapen egokia egin ondoren, Udal Administrazioak, bidezkoa bada, aldatu egingo du zerga oinarria, behin betiko likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari dagokion kopurua ordainarazi edo itzuliko dio.

2. Aurreko atalean ezarri denaren ondoreetarako, obra bukatu edo hori behin-behinerako jaso eta hurrengo lehen hilabetearen barruan inguruabar horren aitorpena aurkeztuko da Udal Administrazioak emango duen inprimakian; obra zuzendu duen teknikariaren ziurtagiria erantsiko da, haren lanbide elkargoak ikusonetsita, baldin eta hori zilegi bada. Agiri horretan obren kostu osoa ziurtatuko da, proiektu eta zuzendaritzaren eskubide teknikoak, industri onura eta obren ondorioz egon daitezkeen beste batzuk barne.

**13. Artikulua.**

Zergaren likidazioaren ondoreetarako, administrazioaren isiltasun positiboaren bidez eman diren lizentzien ondorioak beren beregi eman diren lizentzienak eurak izango dira

**14. Artikulua**

Aurreko artikuluan adierazitako moduan kalkulatutako kuotari Udalak hobari hauek ezarriko dizkio:

**a)** % 95era arteko hobaria jasoko dute inguruabar sozial, kultural eta historiko-artistikoak dituztelako eta enplegua eta aldi baterako bizitokia sustatzen dutelako interes bereziko edo herri erabilerako hartu diren eraikuntzek, instalazioek eta obrek.

Interes bereziko edo herri erabilerako obratzat joko dira herri administrazioek sustatutako babes publikoko etxebizitzen sustapenak. Sustapen horietan, etxebizitzen zati bat babes berezikoak, etxebizitza sozialak edo zuzkidura apartamentuak izan beharko dira, alokairu araubideari laguntzeko asmoz.

**Artículo 12.**

1. A la vista de las construcciones, instalaciones u obras efectivamente realizadas y del coste real efectivo de las mismas, la Administración Municipal, mediante la oportuna comprobación administrativa modificará, en su caso, la base imponible, practicando la correspondiente liquidación definitiva y exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole, en su caso, la cantidad que corresponda.

2. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, dentro del mes siguiente a la terminación de la obra o recepción provisional de la misma, se presentará declaración de esta circunstancia en impreso que facilitará la Administración Municipal, acompañada de certificación del director facultativo de la obra, visada por el colegio profesional correspondiente, cuando sea viable, por la que se certifique el costo total de las obras incluidos los derechos facultativos del proyecto y dirección, beneficio industrial y otros que puedan existir por motivo de los mismos.

**Articulo 13.**

A efectos de la liquidación del impuesto, las licencias otorgadas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrá el mismo efecto que el otorgamiento expreso de licencias.

**Artículo. 14.**

Sobre la cuota resultante en el Artículo anterior el Ayuntamiento establece las siguientes bonificaciones:

**a)** Una bonificación de hasta el 95 por 100 a favor de las construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento del empleo y del alojamiento transitorio que justifiquen tal declaración.

Se consideran obras declaradas de especial interés o utilidad municipal las promociones de vivienda de protección pública promovidas por Administraciones Públicas en el que una parte de la misma sean de régimen especial o viviendas sociales, o apartamentos dotacionales, con el ánimo de

favorecer el régimen de alquiler

% 95eko hobaria aurreko paragrafoan aipatutako obrei baino ez zaie aplikatuko.

Esta bonificación del 95 por 100 únicamente será aplicable a las obras contempladas en el párrafo precedente

**b)** % 50era arteko hobaria jasoko dute babes publikoko etxebizitzei dagozkien eraikuntzek, instalazioek eta obrek eta % 95era artekoa, etxebizitza horiek etxebizitza sozialen kalifikazioa badaukate.

**b)** Una bonificación de hasta el 50 por 100 a favor de las construcciones, instalaciones u obras referentes a las viviendas de protección pública y de hasta el 95% en el supuesto de tener dichas viviendas la calificación de viviendas sociales

**c)** % 50eko hobaria babes ofizialeko etxebizitzei lotutako eraikuntza, instalazio edo obretarako.

**c)** Una bonificación del 50 por 100 a favor de las construcciones, instalaciones u obras referentes a las viviendas de protección oficial.

**d)** % 50eko hobaria eraikuntza, instalazio edo obretarako, etxebizitza partikularretan egin badira eta burutzapen materialeko aurrekontua 6.010,12 euro edo gutxiagokoa bada.

**d)** Una bonificación del 50 por 100 a favor de las construcciones, instalaciones u obras efectuadas en domicilios particulares cuyo presupuesto de ejecución material sea igual o inferior a 6.010,12 €.

**e)** % 90eko hobaria, minusbaliatuei irisgarritasuna eta bizigarritasuna errazten dizkieten eta igogailuak jartzea bultzatzen duten eraikuntza, instalazio edo obretarako. Hobari hori ondore horretarako erabiltzen den zenbatekoaren gainean bakarrik kalkulatuko da, obrak obra berriko proiektu baten barnean ez badaude eta modu independentean egiten badira.

**e)** Una bonificación del 90 por 100 a favor de las construcciones, instalaciones y obras que favorezcan las condiciones de acceso y habitabilidad de los discapacitados y de la instalación de ascensores. Bonificación que exclusivamente se practicará sobre el importe que se destine a tal fin y siempre y cuando las obras no formen parte de un proyecto de obra nueva y se realicen de forma independiente.

**15. artikulua.**

Udalak autolikidazio araubidean eskatu ahal izango du zerga hau.

**Artículo 15.**

El Ayuntamiento podrá exigir este impuesto en régimen de autoliquidación.

**16. artikulua.**

Lizentziaren titularrak baimendu diren obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez burutzea erabakiko balu, idatziz jakinarazi beharko du eta Udalak egin den behin-behineko likidazioa itzuliko dio edo, bestela, osorik deuseztatuko du.

**Artículo 16.**

Si el titular de una licencia desistiera de realizar las obras, construcciones o instalaciones autorizadas, mediante renuncia expresa formulada por escrito, el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación total de la liquidación provisional practicada.

**17. artikulua.**

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egin den likidazioa itzuliko du edo deuseztatu egingo du, titularrak hura berritzea eskatu eta Udalak baimena ematen ez badu behintzat.

**Artículo 17.**

Caducada una licencia el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación de la liquidación practicada, salvo que el titular solicite su renovación y el Ayuntamiento la autorice.

## *VIII. AZKEN XEDAPENA*

Ordenantza honen aldaketa 2008ko urriaren 30ean onetsi da behin betiko, 2009ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du harik eta bera aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

## *VIII. DISPOSICIÓN FINAL*

La modificación de la presente Ordenanza fue aprobada definitivamente el 30 de octubre del 2008, entrará en vigor el día 1 de enero del año 2009 y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGA ARAUPETU DUEN ORDENANTZA

## ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES INSTALACIONES Y OBRAS

ERANSKINA-ANEXO

| **2010KO TARIFA** | Karga tasa | **TARIFA 2010** | Tipo gravamen |
|---|---|---|---|
| Eraikuntza, instalazio edo obra mota | **% 5** | Clase de construcción, instalación u obra | **5 %** |